

24. FITXA. BIZKAIA – 7.000 biztanle edo gutxiago dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek 2024ko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanle edo gutxiagoko udalak, betiere haien plangintza orokorra Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeko betekizuna badute.

Sarbide-esteka: [Hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntzak - Bizkaia.eus](https://www.bizkaia.eus)

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 49/2024 FORU DEKRETUA, maiatzaren 2koa, 7.000 biztanle edo gutxiago dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek 2024ko ekitaldirako hirigintza-plangintza berrikusteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen](#)

Eremuak: Lurralde Garapena

Zenbatekoa: 1.000.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/05/24

Laburpena

Diru-laguntza hauen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalen hirigintza-plangintzaren jarduera orokorra sustatzea, hirigintza-plangintza berrikusteko tresnak — zerbitzu-kontratu administratibo bidez egiten direnak— egitearen ondoriozko kostuak finantzatuta, betiere jarduera horren helburua udalerrien plangintza orokorra Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzea bada.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Dirulaguntza jaso dezaketen hirigintza-tresnak hauek dira:

- Plangintza orokorra erabat edo partez berrikustea Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeko.
- Aurrekoak egiteko beharrezkoak diren lan eta azterlan osagarriak, bereziki ingurumen-ebaluazio estrategikorako lanak, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera eska daitezkeenak.

Dirulaguntzaren xedean jasotako kostuen barruan (BEZa barne), hirigintza-tresna egiteko zerbitzu-

kontratuaz gainera, honako kontratu hauek ere sartu ahal izango dira: hirigintzako, ingurumeneko eta sektoreko legeriaren arabera osagarriak eta beharrezkoak edo eskatzekoak diren dokumentu eta azterlanak egiteko kontratuak (herritarrek parte hartzeko prozesuak, genero-ikuspegia txertatzea, ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoa, azterlan akustikoak edo zonakatze akustikoa eta zarata-mapa egitea).

Deialdi honetatik **kanpo** geratzen dira honako jarduera hauek:

- c) Hirigintzari buruzko legerian xedatzen denaren arabera eskatu beharrekoak ez diren lan edo azterlan osagarriak.
- d) Plangintza-tresnak berrikustea barik aldatzea helburu duten lanak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeko helburua beren-beregi dutenak salbu.
- e) Udal Administrazioak bere langileen edo zerbitzuen bidez egindako lanak.

Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da 40.000 eurotik gorakoa izan.